



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRADUKO tituluen

PRACTICUM I, II eta III-ren GIDA LABURRA

LEHEN HEZKUNTZA
HAUR HEZKUNTZA

2020 – 2021

GrAL eta Practicum batzordeak berrikusia, 2020ko maiatzaren 12an

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. PRACTICUM-AREN ARAUDI OROKORRA.....	2
3. PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN EGITEKOAK.....	4
3.1. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.....	5
3.2. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea.....	5
3.3. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegia	6
3.4. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutorea	6
3.5. Praktiketako ikaslea	7
4. PLAZEN ESLEIPENA	9
4.1. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: Practicum I eta II	9
4.2. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: Practicum III	9
5. PRACTICUM-AREN PLANA	10
5.1. Practicum I	10
5.2. Practicum II	12
5.3. Practicum III	14
6. MEMORIA	16
6.1. Memoriaren atalak.....	16
6.2. Memoriaren formatua	18
6.3. Memoriaren luzera	18
6.4. Memoria gaintzeko betekizunak	18
6.5. Memoriaren entrega	19
7. EBALUAZIOA.....	19
8. BALIOZKOTZEAK-AITORPENAK.....	21
8.1. Practicum I-a baliozkotzea	21
8.2. Practicum II-a baliozkotzea	21
8.3. Practicum III-a baliozkotzea	22
9. EGUTEGIA.....	22

I. SARRERA

33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastegietan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen Practicum-ari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen Practicum-ari buruzkoa oinarrian izanik, Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, Praktiken Dekanordetzaren eta GrAL eta Practicum Batzordearen bitartez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduen tituluei dagozkien Practicum I, Practicum II eta Practicum III egiteko baldintzak finkatu ditu.

2. PRACTICUM-AREN ARAUDI OROKORRA

HAUR HEZKUNTZA GRADUA			
PRACTICUM I	8 Kreditu ECTS= 150 ordu (5 aste - 30 h./astean)	Iraila - urria	2. maila
PRACTICUM II	12 Kreditu ECTS= 210 ordu (7 aste - 30 h./astean)	Azaro - Abendua	3. maila
PRACTICUM III	18 Kreditu ECTS= 360 ordu (10 aste - 30 h./astean)	Urtarrila - martxoa	4. maila

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA			
PRACTICUM I	9 Kreditu ECTS= 150 ordu (5 aste - 30 h./astean)	Iraila - urria	2. maila
PRACTICUM II	11 Kreditu ECTS= 210 ordu (7 aste - 30 h./astean)	Azaro - Abendua	3. maila
PRACTICUM III	18 Kreditu ECTS= 360 ordu (10 aste - 30 h./astean)	Urtarrila - martxoa	4. maila

- Practicum-a enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastegi batean egiten dena (publiko zein itunpekoa), goizez eta arratsaldez.
- Practicum-a Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin behar da; sekula ere ez D.B.H.n.

- Ikasleek hiru Practicum-ak egin beharko dituzte gutxienez bi ikastegietan eta haien ardura da hori bermatzea, baita Haur Hezkuntzako bi zikloetan eta Lehen Hezkuntzako bi ziklotan aritzea ere.
- Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari tituludunek (Goi Mailako Lanbide Heziketa) Practicum III-ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute.
- Practicum III-a egin ostean, batzordeak egiaztatuko balu betekizun horiek ez direla bete, Practicum III-ko kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.
- Gorputz Hezkuntzako minorrean matrikulatutako ikasleek Practicum III-a egingo dute Gorputz Hezkuntzan (Lehen Hezkuntzan), espezialista den maisu-maistra tutore batekin.
- Practicum-eko ikasle bakoitzari Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegi batean plaza bat, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bat eta Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutore bat esleituko zaio (ikus gidaren 3. eta 4. atalak).
- Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko DERRIGORREZKO prestakuntza egingo du ikasleak. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak egutegian zehaztutako jarraipen mintegietara (2 ordukoak) joatea ere DERRIGORREZKOA izango da. Saio hauetara EZ JOATEAK AZKENEKO NOTAN eragina izango du.
- Konfidentziasun konpromisoa sinatu eta entregatu behar da. [Hemen](#) deskargatu daiteke.
- NAHITAEZKOA da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztagiria aurkeztu beharko zaizkie ikastegiko tutoreari eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.
- Justifikatutako 2 egun oso baino gehiagoko ez-agertzeak -edo 4 saio erdi, goizean zein arratsaldean- gerora bete beharko dira. Frogatu barik, bi egun osotan agertu ezean -edo 4 saio erditan, goizean zein arratsaldean-, Praktikak automatikoki bertan behera geratuko dira.
- Ezinbestekoa da Practicum bakoitzeko 150, 210 eta 300 orduak egitea, irakasgaia burututzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean esleitutako

maisua maistra tutoreak ez baditu finkatutako orduak bete, ikasleak beste irakasle batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.

- Practicum-aren amaieran, ikasleak banako memoria bat aurkeztu beharko du; eta bertan, praktiketan izandako esperientziaren berri eman beharko du. Aipatutako lan horren edukiari buruzko informazioa ematea, berriz, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen ardura izango da. Memoria hori, PDF formatuan eta egutegian adierazitako egunean bidali beharko du, posta elektronikoaren bitartez unibertsitateko tutoreari eta hurrengo helbidera ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es Memoriaren egiturari eta formatuari buruzko arauak gidaren 6. atalean zehazten dira.
- Memoria ez balitz egun horretan jasoko, ikasleak EZ AURKEZTUA kalifikazioa jasoko luke deialdi horretan.
- Ezinbestekoa da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). EDOZEIN ALDAKETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, ESKABIDEA ON-LINE EGIN BEHARKO DA, FAKULTATEKO WEB ORRIAN ZEHAZTUTAKO ATALEAN, ETA GRAL ETA PRACTICUM BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.

Oharra: araudia urratuz gero, ikaslearen beraren erantzukizuna izango da. Ez da onartuko ikaslearen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastegiaren arteko inolako akordiorik.

3. PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN EGITEKOAK

Hauek dira Practicum prozesuan parte hartzen duten eragileak: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea, Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegia, Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutorea eta praktiketako ikaslea.

3.1. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Praktiken Dekanordetza arduratuko da, bertara atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileekin batera, Practicum-a antolatzeaz. Prozesuaren hasieran, ikasleentzako informazio-bilera bat egingo da. Bertan, plaza ziurtatzeko beharrezkoak diren ekintzak eta kreditu horiek egiteko ezinbestekoak diren gainerako baldintza guztiak deskribatuko dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, ikastegiekin, unibertsitateko irakasle tutoreekin eta eskoletako maisu-maistra tutoreekin izan beharreko harremanak kudeatuko ditu Hezkuntza eta Kirol Fakultateak.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko GrAL eta Practicum Batzordeak baliozkotuko du prozedura osoa, eta beharrezkoa den orotan egingo ditu bitartekaritza lanak.

- Practicum Dekanordea: Ana Isabel Ugalde Gorostiza. 1-5 bulegoa. Telefono zenbakia: 945 01 32 79.
- Ikastegiko teknikaria: Iñigo Fernández Larrea. 1-5 bulegoa. Telefono zenbakia: 945 01 34 02.
- Helbide elektronikoa: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es

3.2. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle tutorearen egitekoak:

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetako enborreko ikasgai horretako ikasle-talde baten erantzukizuna hartzea eta haien irakaskuntzaz arduratzea, egutegian ezarritako aurre formazioa eta jarraipen mintegiak bere gain hartuta.
- Practicum Dekanordetzak eta titulazioaren koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleari Practicum-aren egitaraua ematea.
- **Bermatzea ikasleek ikastegian sinatuta eman dutela konfidentzialtasun konpromisoa.** Konfidentzialtasun konpromisoa [hemen](#) deskargatu daiteke.

- Ikasleak praktketan gauzatu beharreko irakaskuntzan orientatzea, teoria eta praktika erlaziona ditzan.
- Praktiketako ikasleari arreta eta laguntza ematea, ikastegian egingo duen lana gidatuz eta beharrezko orientazioak emanaz.
- Planteamendu teorikoei jarraitutasuna ematen saiatzea, ikasleak eduki horiek ikasgelan aplikatu ahal izateko; horretarako, maisu-maistra tutorearekin lankidetzan estuan arituko da.
- Ikaslearen praktika ikastegia bisitatzea.
- Ikastegietako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen maisu-maistra tutorearekin harremana izatea.
- Beharrezkoa balitz, ikaslearekin bilerak egitea, praktketan zehar gerta daitezkeen arazoak eta gorabeherak banaka edo taldean konpontzeko.
- Ebaluazio-agiriak maisu-maistra tutoreei bidaltzea eta, horiek bete ostean, jasotzea.
- Ikasleak gidatzea praktiken memoria egiterakoan. Eta ezarritako orientazioen arabera, memoria hori ebaluatzea eta kalifikatzea.
- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak gauzatutako lanak, maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluazioa eta ikastegietara egindako bisitetan jasotako oharra kontuan izanik.
- Practicum-a hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.3. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegia

Abiapuntua izango da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gure Fakultatearen esku jarritako PRAKTIKERAKO PLAZEN ESKAINTZA.

Ikastegien borondatezko lankidetzan izango dugula jakinik, ezinbestekoa da erabateko errespetuz jokatzeko, ikastegiari begira eta bertako langileei begira, nola plazen izapideak egitean, hala ondorengo egonaldian.

3.4. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutorea

Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko maisu-maistra tutorearen egitekoak:

- Ikastegiko praktiken koordinatzailearekin eta unibertsitatean praktiken arduradunarekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin behar den lana koordinatzeko, eta praktiketako ikasleei behar bezalako harrera egingo zaiela ziurtatzea, ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan.
- Practicum-ean zehar ikasleek burutu beharreko zereginetan, euren autonomia eta erantzukizun sena bultzatzea.
- Hezkuntza arloko kultura profesional berezia sustatzea, zeinak defendatuko dituen etengabeko hobekuntza eta irakasle-funtzioaren balioetan, erantzukizuna eta konpromisoa.
- Tutoretzapean duen praktiketako ikasleak egin beharreko berariazko jarduera hezigarriak proposatzea, plan orokorraren baitan.
- Tutoretzapean duen praktiketako ikasleari laguntzea, erabakiaz zenbateko autonomiaz jokatu behar duen egin beharreko jardueretan.
- Praktiketako ikaslearen esku jartzea agintzen zaizkion jarduera hezigarriak prestatzeko ikastegiak dituen baliabideak, bereziki arloko programazioak edo didaktika saileko materiala.
- Praktikaldian zehar prestakuntza-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunaren ahulgune eta indarguneak jakinaraziz, beti jardun hori hobetze aldera.
- Azken txostena egitea, praktiketako ikasleek lortutako konpetentziak ebaluatzeko, tituluaren memoria egiaztatuak eta onartutako ebaluazio-ereduaren arabera.
- Ikasleren batekin familia-lotura duten maisu-maistrek ezingo izango dute ikasle horren irakasle tutore lana egin.

3.5. Praktiketako ikaslea

Ikasleek eskubide hauek izango dituzte prestakuntza-zentroan praktikak egiten ari diren bitartean:

- Informazioa eskuratzeko, ebaluaziorako eta praktikak egiteko behar dituzten baliabideak izateko.

- Prestakuntza-zentroan esleitutako maisu-maistraren tutoretza jasotzeko.
- Unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera ebaluazioa jasotzeko.
- Sexuagatik bereizkeriarik ez jasateko eta desberdintasunean begirunez tratatua izateko.

Era berean, honako hauek izango dira ikasleen betebeharrak:

- Unibertsitateak praktiken inguruan ezarritako arauak betetzea.
- Practicum fase desberdinak ezagutu eta hauetan parte hartzea (informazio bilerak, plaza hautaketa, aurretiko prestakuntza, jarraipen mintegiak, memoria entregatzea) eta bete daitezkeen kolaboratzea.
- Praktiken eta praktiken baitan adostutako jardueren prestakuntza-proiektua ezagutzea eta betetzea, prestakuntza-zentroko praktiketako maisu-maistra tutorearen argibideei jarraituz, eta unibertsitateko tutorearen gainbegiratupean.
- Adostutako datan dagokion prestakuntza-zentroan praktiketan hasia, prestakuntza-proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea eta prestakuntza-zentroaren funtzionamendu eta antolaketa arauak errespetatzea.
- Praktiketako prestakuntza-zentroaren barneko informazioa isilpean gordetzea, bai praktikek dirauten bitartean, baita ondoren ere.
- **Konfidentziasun konpromisoak** sinatzea, ikastegiko Praktiken **arduradunari ematea** eta burutu osteko **memorian txertatzea**. Konfidentziasun konpromisoa [hemen](#) deskargatu daiteke.
- Une oro, errespetuz jokatzeko prestakuntza-zentroarekin, bertako irakasleekin, ikasleekin eta haien familiarekin.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle eta ikastetgiko maisu-maistra tutoreekin lankidetzan aritzea.
- Esleitutako plazari uko egitekotan, Praktiketako Dekanordetzan horren berri ematea.

4. PLAZEN ESLEIPENA

Practicum plazen esleipenaren prozedurari buruzko argibide orokorrak:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Practicum-a burutzeko esleitutako plazen eskaintza jaso ondoren, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Practicum Dekanotzak argitaratu egingo du berau, ikasleek eskaintza horren berri izan dezaten.
- Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratu beharko du, zehaztutako prozedura jarraituta (ikus gidaren 4.1. eta 4.2. atalak).
- Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.
- Praktika lekuaren esleipena aldaezina da.
- **Derrigorrezkoa da Natura Sexualeko Delitu Ezaren Ziurtagiria aurkeztea.**
 - Norberak edo Unibertsitateari baimena emanda matrikulatzerakoan.

4.I. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: Practicum I eta II

1. Practicum I eta Practicum II Arabako Lurralde Historikoan egin behar dira.
2. Ikasleak praktikak egiteko ikastegia hautatuko dute [auto-matrikula](#) sasoian eta espediente akademikoaren arabera.
3. Prozesu hau amaituta, ikasleak ikusi ahal izango du GAUR-en aukeratutako eta esleitutako plaza.
4. Praktikaldia hasi baino lehen, GAUR-en ikusi ahal izango du zein izango den Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen izena.

4.2. Ikasleak ikastegia eta plaza aukeratzea: Practicum III

1. Praktikak burutu daitezke Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, baita Nafarroan ere.

2. Ikasleak praktikak egiteko ikastegia hautatuko dute [auto-matrikula](#) sasoian eta espediente akademikoaren arabera.
3. Gorputz Hezkuntzako minorreko ikasleek praktikak egin behar dituzte irakasle espezialista batekin eta dagokion laukian klikatu, matrikula egiterakoan.
4. Nafarroako Foru Komunitatean praktikak egin nahi dituzten ikasleek (bertan erroldatuak soilik) gustuko ikastegira AUTOPRACTICUM inprimakia eraman beharko dute, bertan osatu eta sinatzeko. Ondoren, inprimaki hori 1.5 bulegora ekarri edo bidaliko du gaeum.practicum.dekanordea@ehu.es helbidera.

5. PRACTICUM-AREN PLANA

Atal honen azpiataletan zehazten den moduan, Practicum bakoitzaren helburuak eta horiekin batera garatu beharreko gaitasunak ezberdinak dira. Ondorioz, jarraipen mintegietako edukiak Practicum-aren arabera aldatuko dira, horien xedea ikastegian egindako behaketak eta izandako bizipenak modu antolatuan eta koherentean aurkeztea baita. Era berean, kasu bakoitzeko helburuen araberrako behaketak, azterketak eta gogoetak bildu beharko ditu praktikaldiaren amaieran entregatu beharreko memoriak.

5.I. Practicum I

5.I.I. Helburuak

Practicum I-aren funtsezko helburua da ikasleek ikastegiarekin lehenengo harremana finkatzea eta behaketa lan orokor bat egitea. Horretarako, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitako ezagutzak txertatu beharko dituzte, ikasgelako aniztasunari, eskolari eta beronen gizarte-inguruneari egokituta. Gainera, berebiziko arreta eskaini beharko diote genero tratamenduari. Oso garrantzitsua da ikasleek behaketarako, informazioa biltzeko, eta datuak aztertu

eta interpretatzeko moduak eta teknikak ezagutzea; eta bide beretik, jarrera positiboa eta lankidetzan jarduteko, taldean lan egiteko eta lankideekin harreman onerako aurrez aurretiko jarrera erakutsi beharko du beti.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum I-aren helburuak:

Ikastegia eta haren ingurunea

- Irakasle lanbidearekin ohitzen joatea.
- Eskolako errealitatea behatzeari ekitea.
- Ikastegiaren antolamendu egitura ezagutzea: zuzendaritza-taldea, batzorde pedagogikoa, koordinazio mailak...
- Ikastegiaren proiektu guztiak ezagutzea: Ikastegiko Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua...
- Ikastegiarekin elkarreraginean dauden zerbitzuak ezagutzea: Berritzeguneak, baliabide teknikoak eta laguntzarako baliabide pertsonalak...
- Ikastegiaren gizarte eta kultura ingurunea, hizkuntza ingurunea eta ekonomia ingurunea ezagutzea.
- Ikastegiko ingurunearen instalazioak eta zerbitzuak eta horien erabilera maila ezagutzea.
- Gurasoek ikastegian duten esku-hartze mailari buruzko informazioa biltzea.
- Erantzukizunean oinarritutako jarrera gogotsua erakustea, eta hezkuntza jardueraren berezko erantzukizunetan pixkanaka-pixkanaka parte hartzen joatea.

Ikasgela

- Zuzeneko behaketa-teknikaren garrantzia ezagutzea.
- Ikasgelan informazioa biltzeko dauden tresnetara ohitzen joatea.
- Informazioa aztertzen eta interpretatzen jakitea.
- Eskuratutako ezagutza teorikoak ikastegiko eta ikasgelako errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Aniztasunaren faktore guztiak ezagutzea: generoa, kulturartekotasuna...

- Ikasgela bateko errealitatearen aldagai guztien arteko dinamikari eta elkarreraginari behatzea.
- Ikasgela ezagutzea eta bertara egokitzea, eta ikasleen ezaugarrietara ohitzen joatea.
- Talde/ikasgela batean, denboraren eta espazioaren antolamendua aztertzea.
- Ikasgelan garatutako metodologia-estrategiei behatzea eta horiek ezagutzea.
- Ikasleek hainbat zereginetan izaten dituzten gaitasunak eta zailtasunak identifikatzea eta aztertzea.

5.1.2. Gaitasunak

- Ikasgelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
- Ikasgelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behatzea, bertan giro egoki bat sortzeko asmoz.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.

5.2. Practicum II

5.2.1. Helburuak

Practicum II irakasgaiaren helburu nagusia da irakaslearen eginkizunaren eta irakas-praktikaren inguruko analisia egin eta hausnartzea, eta esku-hartze didaktiko bat diseinatzea.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum II-aren helburuak:

Ikasgelan behatutako praktiken analisia

- Gelan irakasteko eta ikasteko egoerak deskribatu, interpretatu eta baloratzea
 - Klasea antolatzea (espazioa, denbora sekuentzia, materialak).
 - Multzokatzea eta harremanak.

- Kudeatzeko eta parte hartzeko arauak.
- Jarduera motak.
- Behatze eta ebaluatze sistemak.
- Gorabehera kritikoak.
- Gelako gizarte antolamendua eta ikaskuntza prozesua aztertzea
 - Taldeko kohesioa eta giroa.
 - Ikasleen ezaugarriak.
 - Irakaslearen igurikpenak.
 - Irakaslearen rola gelako taldearen bizitzan.
 - Ikaslearen motibazioa.
 - Gorabehera kritikoak.
- Bizikidetzaz, planteamendu eta gatazkak konpontzeko estrategiak aztertzea
 - Gaitasun sozialak eta gatazkak konpontzea.
 - Egoera diskriminatzaileak eta haien aurreko jokabidea (jarduteko protokoloak eta programak).
 - Gorabehera kritikoak.
- Aniztasunaren trataera aztertzea
 - Ikaskuntza mugak ezagutzea.
 - Ikaskuntza erritmoetara egokitzea: metodologiak eta ebaluazioa.
 - Gorabehera kritikoak.
- Gelako komunikazio eta elkar eragite prozesuak aztertzea
 - Irakasleak bultzatutako zeregin, jarduera eta eztabaida motak.
 - Zereginen edukiak.
 - Edukiak irakastea eta prozedurak irakastea elkarrizketaren bidez.
 - Irakaslearen galderak eta dituzten funtzioak.
 - Esandakoa birgogoratzeko, birformulatzeko, errepikatzeko teknika. Irakasleak haiek erabiltzen dituen egoerak.
 - Haurren arrazoitzeari emandako garrantzia, bai egintza giroan bai irudikatze giroan, eta haren pentsamendua garatzeari -taldeko elkarreragitearen bidez- (ideiak partekatzea, arrazoiak ematea, zergatiak galdetzea, iritziak zalantzan jartzea, hausnartzea,

akordioetara iristea, denei parte harraraztea, denei beren erantzukizuna harraraztea...)

- Ikasleengan zenbait lengoia erabiltzearen garrantzia, arrazonamendua eta esperientzia besterenganatzeko (hura aberasteko, aurrerabidean jartzeko, kontatzeko, azaltzeko edo argudioak emateko).

5.2.2. Gaitasunak

- Gelan elkar eragite eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duten gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.
- Komunikazio eta adierazpen trebetasun handiagoa lortzea gela barruan eta kanpoan bi hizkuntza ofizialetan.
- Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikastearena.
- Teoria eta praktika gelaren eta ikastegiaren errealitatearekin lotzea.
- Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.

5.3. Practicum III

5.3.1. Helburuak

Practicum III-ak hauxe du helburu nagusi: ikasleek proiektu didaktikoak eta hezkuntza programak (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak...) diseinatzeko, praktikan jartzeko eta ebaluatzeko gaitasunak garatzea, aurreko Practicum-etan egindako lana berrikusiz eta esperientzia zer-nolako ikastegian gauzatuko duten aurretik ezagutuz.

Hona hemen, zehatz-mehatz, Practicum III-ren helburuak:

- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua kritikoki ebaluatzea. Practicum I eta II-a modu autokritikoan oroitzea, sortutako dokumentuen bidez

- Ikastegiaren eta haren testuinguru sozialaren eta kulturalaren arteko harremana eta lankidetzak. Proiektu eta programa motak. Alderdi bakoitzaren azterketa.
- Umeekiko, tutorearekiko eta beste irakasleekiko harremana eta komunikazioa.
- Irakaskuntzaren plangintzari eta antolakuntzari lotutako alderdiak.
- Ikasgela bizitzea eta kudeatzea.
- Esku-hartze proposamenaren irizpide pedagogikoak eta didaktikoak.
- Esku-hartzearen eremua aztertzea
 - Arazoa aztertzea eta definitzea.
 - Aurrekariak.
 - Erakunde-markoa.
 - Erreferentzia-marko teorikoa.
 - Esku hartzeko estrategiak.
- Proposamena diseinatzea, praktikan jartzea eta ebaluatzea
 - Prozesua zehaztea: proiektuaren edo programaren faseak.
 - Esku-hartzea diseinatzea.
 - Esku-hartzearen proposamena praktikan jartzea.
 - Esperientzia sistematikoki erregistratzea.
 - Prozesuak eta emaitzak aztertzea.
 - Hobetzeko proposamenak.
- Practicum III-ari buruzko hausnarketa eta balorazioa. Memoria egitea eta aurkeztea

5.3.2. Gaitasunak

- Ikastegi batean ezar daitezkeen jardura eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.
- 0-6 eta 6-12 urteko ikasle taldeen elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea.
- Hezkuntza erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.

- Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.

6. MEMORIA

Praktiketako memoria testu **akademikoa** da, egokiro **prestatu, idatzi eta aurkeztu** behar dena. Gogoan izatekoak dira hainbat baldintza, estuki lotuak daudenak edukiak antolatzeke moduarekin, eta eduki horiek oinarrian dauzkaten aipamen bibliografikoak adierazteke moduarekin.

Memoriaren asmoa ez da zehatz-mehatz kopiatzea eta deskribatzea eskolako egonaldian erabilitako dokumentazioa edo bizi izandako egoera desberdinak. Aitzitik, ikasleek eskolako funtzionamendua **analizatu** behar dute eta hartutako oharrek edo egindako behaketaren **sintesia** egin, hortik abiatuta, **hausnarketa pertsonala** egiteko.

Derrigorrezkoa da ikasleak informazioa biltzea eskola komunitatearen ezaugarri sozial eta kulturalen ingurukoa, eskolaren antolamenduarena eta Eskolako Hezkuntza Proiektuarena. Ezin da ahaztu edozein lan, proposamen edo esku-hartze didaktiko **koherentziaz argudiatuta eta justifikatuta** egon behar dela.

Nahiz eta Practicum bakoitzak bere garapen propioa izan, aurreko kapituluan adierazi lez, memoria guztiek ezaugarri komunak dituzte prestatzerakoan. Ikasleak argi izan behar du **alderdi akademikoak eta formalak ebaluatuko** direla: besteak beste, aurkezpena, ortografia, idatzizko adierazpena, koherentzia edo erreferentzia bibliografikoak.

6.I. Memoriaren atalak

Hauek dira praktiketako edozein memoriatan falta ezin diren atalak:

1. **Azala:** Hezkuntza eta Kirol Fakultateko logotipoarekin; Practicum I, II edo III; espezialitatea; ikaslearen izen-abizenak; praktiketako ikastegia; ikasturte akademikoa eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen izen-abizenak.
2. **Aurkibidea:** zenbakituta.
3. **Ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa.** Konfidentzialtasun konpromisoa [hemen](#) deskargatu daiteke.
4. **Sarrera:** hurrengo kapituluetan azalduko denari erreferentzia egingo zaio, burututako lanaren konplexutasuna ulertu ahal izateko. Atal egokia da praktikak egindako eskolaren berariazko ezaugarriak aipatzeko, eta egindako esku-hartze edo sekuentzia didaktikoaren zergatia edo motibazioa azaltzeko (beharrezkoa denean), edo praktika aldian aurkitutako erraztasunak edo eragozpenen berri emateko.
5. **Eskola eta eskola-komunitatea:** eskolan topatutako errealitate desberdinei buruz mintzatuko da, inguruaren ezaugarriak, aniztasuna, koloreak, familien parte-hartzea, eskolaz kanpoko egoerak, eskolaren lerrokatzea, espazio-denboraren egituraketa, baliabideak, berrikuntza proiektuetan parte-hartzea, maisu-maistren kemena, eta abar.
6. **Irakaskuntza praktikak:** burutzen ari den Practicum-aren arabera, berba egingo da behaketaz edo esku-hartzeaz, eskolako zein unibertsitateko tutoreen onespenearekin egindako sekuentzia edo saioez.
7. **Ondorio orokorrak eta hausnarketa pertsonala:** praktika aldian zehar izandako esperientziaren analisia zehaztu behar da. Ikasleak azaleratu behar ditu bizi izandako egoera korapilatsuak, maisu-maistra lanbidearen zereginen inguruko galderei bide emateko, baita etorkizunean hobetzeko alderdiak antzemateko ere. Orduantxe baloratu behar dira irakaskuntzaren indar-guneak eta ahuleziak, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean egindako lana ere bai.
8. **Bibliografia:** APA 7. edizioko estilo arauen arabera.
9. **Eranskinak:** egunerokoa (derrigorrezkoa Practicum I-ean, gomendatua Practicum II eta III-an) eta memoria hobeto ulertzeko lagungarri izan daitezkeen dokumentu, material, grafikoa, marrazki etab.

6.2. Memoriaren formatua

- Times New Roman edo Arial 12 puntukoa, eta 1,5eko lerro-arte.
- Marjinak: ezker-eskuma, 3 cm. Goialdean eta behealdean, 2,5 cm.
- Orrialdeak zenbakituta.
- Derrigorrezkoa da erabilitako iturri bibliografiko guztiak aipatzea.
- Hitzez hitzeko aipamen gehiegi ez egitea gomendatzen, aproposagoa izan daitekeelako askotan parafrasia egitea. Ez da egokia, adibidez, Hezkuntzako Legearen testuak bere horretan hartzea, esku artean duen egoerara egokitu gabe.
- Hizkera argia, zehatza, akademikoa, inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea. Sekula ere ez, hizkera arrunta, lagunartekoa.
- Ekidin behar dira identifikatzeko moduko datuak, pertsonenak zein lekuetakoak. Horien ordean, erabili daitezke asmaturiko izenak edo inizialak.
- Irudieren bat erabiltzekotan, egile-eskubideak kontuan izango dira, lizentzia-erabilerak errespetatuko dira eta iturria aipatuko da.
- DEBEKATUTA DAGO umeen argazkiak eta grabazioak memorian txertatzea.

6.3. Memoriaren luzera

- Practicum I: Azala + Aurkibidea + Ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa + 10-15 orrialde + Eranskinak.
- Practicum II: Azala + Aurkibidea + Ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa + 14-21 orrialde + Eranskinak.
- Practicum III: Azala + Aurkibidea + Ikasleak sinatutako konfidentzialtasun konpromisoa + 20-30 orrialde + Eranskinak.

6.4. Memoria gaintzeko betekizunak

- Plagiorik ez egitea. Ezin dira kopiatu eta norberarenak balira moduan aurkeztu beste batzuen ideiak. Beti zehaztu behar da egilea edo autorea.

- 5 akats gramatikal edo ortografiko baino gehiago ez egitea.
- Ikastegiko umeen eta irakasleen argazkiak ez gehitzea.

6.5. Memoriaren entrega

- Praktiketako memoria, **PDF formatuan** eta posta elektronikoko bitartez, **bi helbidetara** igorri behar da: tutorearen helbidera eta hurrengora: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es.
- Hala egin ezean, EZ AURKEZTUA kalifikazioa jarriko zaio ikasleari.

7. EBALUAZIOA

Praktiken kalifikazioa Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutorearen balorazioaren eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioaren emaitza izango da, banaketa honen arabera:

Ebaluazio-irizpideak		%
Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Ikastegiko tutorearen balorazioa		% 30
Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa	Aldez aurretiko prestakuntzan eta jarraipen mintegietan egindako jarduera	% 30
	Memoria	% 40

Azken notan baldintza hauek dute eragina:

- Aldez aurretiko prestakuntzara EZ JOATEAK (9:00-17:00) AZKEN notan 3 PUNTUKO JAITSIERA izango du.

- Aldez aurretiko prestakuntzara ORDU BATZUETAN EZ JOATEAK PUNTU JAITSIERA PROPORZIONALA izango du azken notan.
- Jarraipen mintegietako HUTS EGITE BAKOITZAK PUNTU 1 GUTXIAGO izango du azken notan.
- Praktiketako EBALUAZIO-IRIZPIDEREN BAT GAINDITZEN EZ BADA, ikasleak GUTXIEGI kalifikazioa jasoko du azken notan eta hau egin beharko du kasuan kasu:

GUTXIEGI edo EZ AURKEZTUA jaso duen ebaluazio-irizpidea	Egin beharrekoa
Memoria, lehenengo deialdia	Bigarren deialdian beste memoria bat egin beharko du.
Memoria, bigarren deialdia	Berriro egin behar dira praktikak, aldez aurreko formazioa, jarraipen mintegiak, ikastegiko egonaldia eta memoria .
Aldez aurretiko prestakuntzan eta jarraipen mintegietan egindako jarduera	Berriro egin behar dira praktikak, aldez aurreko formazioa, jarraipen mintegiak, ikastegiko egonaldia eta memoria .
Ikastegiko tutorearen balorazioa	Berriro egin behar dira praktikak, aldez aurreko formazioa, jarraipen mintegiak, ikastegiko egonaldia eta memoria .
Justifikatu gabe, eskolara ez joatea bi egun osotan edo lau egun erditan, goizean zein arratsaldean	Berriro egin behar dira praktikak, aldez aurreko formazioa, jarraipen mintegiak, ikastegiko egonaldia eta memoria .

- Praktiken (aldez aurretiko prestakuntza, ikastegiko egonaldia eta bertan egindako irakaskuntza-praktikak, jarraipen mintegiak, ikastegiko tutorearen balorazioa eta memoria) balioa praktika

denboraldiaren ikasturte akademikoaren deialdietarako soilik izango da. Hau da, notak ez dira gordeko ikasturte batetik bestera.

Oharra: Ikastegiko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Memoria gainditu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, berriro egin beharko da ikastegiko egonaldia.

8. BALIOZKOTZEAK-AITORPENAK

Hauek dira Practicum bakoitza balioztatzeko baldintzak:

8.1. Practicum I-a baliozkotzea

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotuko da:

- a. Haur Hezkuntza Graduako ikaslea izanik, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria bada.
- b. Maisu-maistra diplomatua bada.
- c. Azkeneko hiru urteetan aritu bada irakasle gisa, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoan edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan.
- d. Haur Hezkuntza Graduako ikaslea izanik, Lehen Hezkuntzan graduatua bada, eta alderantziz.

2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:

- a. Praktikaldian ikasleak ziurtatzen badu, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan, lanaldi osoan diharduela irakasle gisa.

8.2. Practicum II-a baliozkotzea

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotuko da:

- a. Irakasle ikasketetako Diploma izanez gero.

- b. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari tituluaren jabe dela (Goi Mailako Lanbide Heziketa).
2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:
- a. Haur Hezkuntza Graduako ikaslea izanik, Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikaria bada.
 - b. Maisu-maistra diplomatua bada.
 - c. Haur Hezkuntza Graduako ikaslea izanik, Lehen Hezkuntzan graduatua bada, eta alderantziz.

8.3. Practicum III-a baliozkotzea

1. IKASGAI OSOA baliozkotuko da:
- a. Gorputz Hezkuntzako minorreko ikaslea izanik, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduduna bada.
 - b. Matrikulatu den espezialitateko maisu-maistra diplomatua bada.
2. EGONALDIA SOILIK aitortuko da eta aurreko formazioa, jarraipen mintegiak eta azken memoria egin beharko dira:
- a. Praktikaldian ikasleak ziurtatzen badu, lanaldi osoan, matrikulatuta dagoen graduan irakasle gisa diharduela, baita Gorputz Hezkuntzako minorrean ere.

9. EGUTEGIA

PRACTICUM I		
Aldez aurretiko prestakuntza		Irailaren 28an 9:00 - 17:00
Praktikaldiari orduak	dagozkion	150 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan
Ikastegian egin beharreko praktiken denboraldia		Irailaren 29tik urriaren 30era
Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak		Urriaren 7, 14 eta 21ean 15:00 - 17:00
Memoria aurkeztea		Azaroaren 26an / martxoaren 25ean

	PDF formatuan posta elektronikoko bitartez igorri tutoreari eta hurrengo helbidera: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es
Notak argitaratzea	Abenduaren 10ean / apirilaren 22an

PRACTICUM II	
Aldez aurretiko prestakuntza	Azaroaren 2an 9:00 - 17:00
Praktikaldiari dagozkion orduak	210 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan
Ikastegian egin beharreko praktiken denboraldia	Azaroaren 3tik abenduaren 18ra
Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak	Haur Hezkuntza: azaroaren 18an; eta abenduaren 2 eta 16an Lehen Hezkuntza: azaroaren 11 eta 25ean; eta abenduaren 9an 15:00 - 17:00
Memoria aurkeztea	Urtarrilaren 14an / apirilaren 15ean PDF formatuan posta elektronikoko bitartez igorri tutoreari eta hurrengo helbidera: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es
Notak argitaratzea	Urtarrilaren 28an / maiatzaren 13an

PRACTICUM III	
Aldez aurretiko prestakuntza	Urtarrilaren 25ean 9:00 - 17:00
Praktikaldiari dagozkion orduak	300 ordu 6 ordu egunean, beraz, 30 ordu astean, goiz eta arratsaldeko saioetan
Ikastegian egin beharreko praktiken denboraldia	Urtarrilaren 26etik martxoaren 31ra
Praktikaldiaren jarraipenerako mintegiak	Haur Hezkuntza: otsailaren 10 eta 24an; eta martxoaren 10 eta 24an Lehen Hezkuntza: otsailaren 3 eta 17an; martxoaren 3 eta 17an 15:00 - 17:00
Memoria aurkeztea	Apirilaren 22an / maiatzaren 27an PDF formatuan posta elektronikoko bitartez igorri tutoreari eta hurrengo helbidera: ga-eum.practicum.dekanordea@ehu.es
Notak argitaratzea	Maiatzaren 13an / ekainaren 10ean

